

# © Hitzontzi ©

## Gonbidapena

MARIASUN LANDA

Zatoz, emadazu esku hori.  
Nahi baduzu, zurekin ekar dezakezu  
zure sonbreiru beltza,  
zure bufanda urdina,  
edo zure pailazo-sudur gorria.  
Itzal ezazu mugikorra.  
Bila ezazu zure *abriteportas* berezia,  
bestela, ez da atea irekiko.  
Egin ezazu zurrut isiltasunaren edalontzitik.  
Jarri edo kendu oinetako egokiak.  
Jarri edo kendu betaurrekoak  
Jarri edo kendu umorea.  
Ken ezazu gainetik egun aspergarrietako hautsa.  
Eta etor zaitez nirekin.

\* \* \*

Atsedena hartu behar duzu hainbeste hotsetatik.  
Barnekoetatik eta kanpokoetatik.  
Izan daitezkeenak eta ez daitezkeenak  
dastatzeko beharra duzu.  
Begiratzea, zeure baitatik irteteko.  
Entzutea, zeure baitara sartzeko.  
Ausartzea, irribarre egitea,  
txunditurik gelditzea,  
beldurtzea,  
ondoren lasaitzeko.  
Bidean galtzea zeure burua aurkitzeko,  
sentitzen duzunari hitzak jartzeko,  
paperezko pistetan irristan ibiltzeko,  
apaletan barrena *surfean* aritzeko,  
datu-pantailetan usnan ibiltzeko...

\* \* \*

Irudien eta hitzen musuak behar dituzu.  
Hitz egingo dizute, hitz egin dezazun.  
Dibertitu egingo zaituzte, besteak diberti ditzazun.  
Kontsolatu egingo zaituzte, besteak kontsola ditzazun.  
Liluratu egingo zaituzte, besteak lilura ditzazun.

Nora goazen?

Ez al duzu asmatu?

LI

BU

RU

TE

GI

RA.


Noski!

Mariasun Landa



# Asun Balzola gure artean

MASIASUN LANDA



Asun Balzolak orain dela urtebete utzi gintuen, baina gure artean dugu haren liburutegi osoa, haren inprimaki, monografia, gutun, agiri profesional eta obra grafiko guztiarekin batera, Donostiako Liburutegi Nagusiko Haur Liburuaren Dokumentaziogunean. Haren oinordekoen erabakia eta Donostia Kulturak adierazitako jarrera albiste on izan dira Asun artista berritzaile bikaintzat dugunontzat, euskal haur-literaturari haren obrak egindako ekarpena aitortzen dugunontzat eta hainbeste urtetan bera irakasle eta kolaboratzaile izan dugunontzat.

Nire kasuan esker ona eta emozioa are handiagoak dira, erabaki horrek heriotzak abisurik gabe, bat-batean eta gordinki eraman zidan adiskide handia itzuli didalako, modu sinbolikoan bada ere. Gogoan dut, orain dela urtebete, haren heriotzaren berri izan genuenean, komunikabide askotatik deitu zidatela informazioa eta iritzia eskatzeko. Ez nintzen haiei kasu egiteko gauza izan. Nire baitan bildu nahi nuen, besterik ez, albiste hura barneratzen hasteko, egun batzuetan lurra sentitu ezinik utzi ninduen eta berriak, ilusioei eutsi ezinik,

orri zurian idatzi ahal izateko kemenik gabe. Asun eta biok ordurako ezaguna zen idazle/ilustratzaile *tandema* osatzen genuen, baina adiskide ere baginen. Batez ere, adiskide. Nekez osatu ahal izango dut berak utzitako hutsunea, erreferentzia saihestezina baitzen niretzat, solaskide paregabe eta ahaztezina. «*Elefante txori-bihotzal Elefante corazón de pájaro*» ipuina eskaini nionean, hauxe besterik ez nuen jarri: Asun Balzola adiskideari. Horrela laburbildu nituen nire esker on eta estimua, baita lotzen gintuen ezkutuko konplizitatea eta 20 urte baino gehiagotan partekatutako pasadizo, bidaia, konfidentzia eta esperientziak ere.



bezala bakarrik, baita idazle gisa ere. Prentsarako ere egin zuen lan eta hainbat obra itzuli zituen ingeletetik, alemanetik edo italieratik gaztelaniara. Sari ezagunek berretsi dute haren obra: Bratislavako *Golden Appel* sariak (1985), Ilustrazioaren Sari Nazionalak (1986) edo Haur Literaturako Euskadi sariak (1991), besteak beste.

Kosmopolita eta eleanitza zen, eta beti aldarrikatu izan zuen bere euskal jatorria. Gogo biziz jardun zuen 80ko hamarkadaren hastapenetan hasi berria zen euskal haur-argitalpenera bideratzen haren ideiarik berritzaileenak. Horien artean izan ziren *Margoak*, *Zenbakiak*, *Itziar eta Anton*, *Negua* eta abar, Erein argitaletxe sortu berriarekin argitaratu zituenak. Berak esan ohi zuen, garai hartan, zorretan sentitzen zela euskararekin eta ez zekiela zor hori nola kitatu; kanpoan bizi zenez, ez zuen haren burua hizkuntza ikasteko gai sentitzen, baina lan honi esker euskal kulturaren alde lan egin zezakeela sentitu zuen. Gainera, horrela, hemengo idazle, ilustratzaile eta kurturgile askorekin harreman aberats eta adiskidantzazkoak izateko aukera izan zuela. Haren bibliografia zabalaren baitan *Euskal Leiendak* (Erein) obrako ilustrazio bikainak azpimarratu nahi nituzke. Lau liburuki horietan haren lanik onena islatzen ahalegindu zen, eta bereziki gustura zegoen lan horrekin, berak behin baino gehiagotan esan zidan ez.

### **Bilbotarra, euskalduna, kosmopolita**

Asun bilbotarra zen, nola ez. Gure artean behintzat ohikoa zen horri buruzko txistek egi-tea. 1942an jaio zen, familia ezagun batean, eta grafismoa ikasi zuen Arte Ederren Eskolan. 22 urte zituela auto-istripua izan eta elbarri geratu zen. Horrek errotik aldatu zuen haren bizitza. Guk ezagutu genuen Asun Balzola heldua ezin da ulertu zartada handi hori gabe. Haren nortasun borrokalaria, haren sormena, etengabe bizitzaren inguruan ematen zigun irakaspena edo haren obra plastiko eta literarioa ezin dira ulertu zoritxarreko ezbehar hori kontuan izan gabe.

Sufrimendu eta diziplinako urte askoren eta errehabilitazio estoiko luzearen ondoren iritsi zen artista plastikoa, nazioartean aintzat hartzen zuten ilustratzailea eta nik 80ko hamarkadan ezagutu nuen emakume erakargarria, seduzitzailea, izatera. Nik ezagutu nuenerako emanak zituen urte batzuk Italian. Bertan ezkondu zen eta ondoren Madrilera joan zen bizitzera. Ilustrazioari heldu zion bete-betean. Ez haur-liburuen ilustratzaile

Euskal idazle eta ilustratzaileekin izan zituen harreman estu horiek bere heriotzaren unera arte iraun zuten. Ilustratzaile berritzailea izan zen, karismaduna eta gaur egungo ilustratzaileetako askoren irakaslea, baita gure idazleetako askoren lankide ahaztezina ere. Horien arteko bat izateko ohorea izan dut nik.

### Idazle intuitiboa eta berezia

1978tik aurrera bere testuak idazten hasi zen. *Historia de un erizo* izeneko liburu atsegingarria izan zuen lehena. Horretarako emandako argudioak haur-literaturako beste idazle handi batzuek emandakoen antzekoak dira oso. Nola, batzuetan, ilustratzeko jasotzen zituen testuak hain lauak eta motelak ziren, planteamendua hain atzeratua iruditzen zitzaion, zeren irtenbide bakarra bere testuak idazten hastea erabaki zuen. Nolanahi ere, bere ustez, ilustratzailearen lana idazlearena bezain garrantzitsua zen eta ikuspegi plastikotik ere balioetsi behar zirela liburuak zioen.

Nire aburuz, Muniari buruzko albumek osatzen dute Asun Balzolarek obraren zatirik onenetako bat. Niretzat egiazko aurkikuntza estilistiko izan ziren eszenak, deskribatu baino gehiago, iradoki egiten zituzten akuarela haiek, bere ilustrazioek izaten zuten funtsezko gauzen zerbitzurako soiltasun formala edo sentipenak bilatzeko, giroak iradokitzeko edo irakurlearen konplizitateari lekua uzteko modu berritzailea. Album haiek eta Munia pertsonaia zoragarri hark eraman ninduten Madrilgo Clara del Rey kaleko ate hura jotzera, 80ko hamarkadaren amaieran. Asun Balzolarengan hauteman nituen *Iholdiri* buruzko nire testuak idazten nituenean gogoan nituen ezaugarri berberak. Asunek eman zien forma, kolorea eta bizia, ondoren estatuan bertan nahiz kanpoan onespren handia izan zuten *Iholdiren* testu minimalistei. Nire liburuaren

lehen atalean *Iholdik* txapela kentzen du Munia agurtzeko, kapela urdina zeramana. Hasieratik bertatik *Iholdi* eta *Munia* izan ziren adiskide, liburuak ezin baitzuen bestela hasi, hau da, Asun Balzolarekiko mirespena eta esker ona adierazteko keinurik egin gabe.

Txikitan, Txoriburu deitzen omen zioten etxean eta izenburu bera du Asun Balzolarek autobiografiak. Liburu zoragarria, benetan. Izan ere, Asunek 90eko hamarkadaren amaieran hasi zuen obrarik norberarena, landuena eta ondoen egindakoa dela uste dut. Haurtzaroko oroitzapen horiek ate ezin hobeak dira Asunen nortasuna ezagutzeko, oinarria ezagutzeko, lan arkeologiko hunkigarri eta oroitarazlea izaki. Haren ariketa autobiografikoaren emaitza ezin zen izan iradokitzaileagoa. *Txoriburu* lanean egindako ibilbidea zazpi urte zituenean amaitzen da, aitaren bat-bateko heriotza tragikoarekin. Tragedia hori berearekin konparatu ohi zuen maiz Asunek, bere bizitza markatu zuen auto-istripuarekin, hain zuzen ere.

Horregatik, hil zela urtebete igaro den honetan, eta bere liburutegia eta agiriak Donostia Kulturari eman izana aitzakiatzat hartuta, haren obraz gozatzeraz gonbidatu nahi zaituztet. Abesten entzuteko aukera ere izan daiteke, euskarazko argitalpenak (Erein) CD bat ere bai baitu, berak abestutako kanta batzuk biltzen dituena. Asun omentzeko eta gure artean mantentzeko izan dezakegun modu ugarietako bat.

(Uztaila 2007)





## Egin zaituz Galtzagorri Elkarteko bazkide

I. Jarraian aurkezten dugun fitxa bete eta ordainketa-agiriarekin batera, gure helbidera bidali:

### Galtzagorri Elkartea

Zemoria, 25, behea. 20013 Donostia. Tel.: 943471487

behinola@galtzagorri.org — www.galtzagorri.org

Izen-abizenak:.....

Helbidea:.....

Herria:.....Posta-kodea:.....

Telefonoa:.....faksa:.....

e-maila:.....

Ogibidea:..... lantokia:.....

2. Urteko bazkide-kuotaren ordainketa egin (32 €)

Galtzagorri Elkartearen kontu-korrontean dirua sartuz:

### CAJA LABORAL – EUSKADIKO KUTXA

sukurtsala: Loyola 15 (20.014 Donostia)

kontu-zenbakia: 3035 0242 6 8 242 0 00247 1

Galtzagorri Elkarteko bazkide guztiak doan jasoko dituzte  
Elkartearen argitalpen guztiak.